

AINGIRA KUMAK

UMIANTZAKO ANTZERKIA

---

Antzerki onetako langilleak:

URRE.- Arumatxe zaar bat irudituko daben umetxea.

MANU,

KELE,

PAUL,

BEGO,

GOZO.

Arumagas bizi diran neska mutil umegurtzak.

KAKU.- Arriko aguasil bat irudituko daben umetxea.

JHON

KEFY.

Polikula egilleak. Umeak.

Gaurko denperetan.

Etze zaar, trakets eta erdi-uts bateko sukaldea.

MANU.- (Asarre) Kendu alkondara ori.

KELE.- Zegaitik?

MANU.- Neurea dalako.

KELE.- Guzurra.

MANU.- Guzurra dala?

KELE.- Ez da surea, Paul ena baiña.

MANU.- Esaten dozulako be... Kentzeko esan dautsut.

PAUL.- Amama, neuria ez da ba?

URRE.- Danena, txotxe, danena.

KELE.- Orrela, neuria be bai, ez?

URRE.- Pobrion kentzuak elaxe dira. Al dan moduan konpendu bear?

PAUL.- Neuk erabili neban atze.

MANU.- Ta zer? Baita nik sure prakak, eta sure jertza, ta sure abarketak. Ta zer? Niriak dira? Nireak bez eta suriak bez. Etxekuak baiña.

URRE.- Txotxe, noiz ikasi bear dozue alkarren maitasunez biziten, anai lez alkar artzen?

KELE.- Beti-beti beerrek euki nai izaten nau errazela.

MANU.- Ta suk nai dozuna egin, es? Esderu ba zeuriagas urtengo. Esta esta... eztesu urtengo. (Alkendaratik tengadaka diardula apurtu egiten dautse)

KELE.- Ikusten, ama, ikusten?

URRE.- Aitaren... Orain amumarentzat biarra, esta? Beti bardin. Egun gustiak zuen txatalak konpentzen.

MANU.- Nai ta ez det egin.

KELE.- (Asarre, kolpe egiteko eran) Ezets?

URRE.- Manu...!

MANU.- Ba dakiñe nai ta ez dedala egin ta zegaitik danil niri kelpa egiten?

URRE.- Ba dakit. Baiña zure zatarkeriak eta gaistakeriak beti ekarten dabe elaxe zerbait.

KELE.- (Asarretuta, alkendaria kendu ta Manu ri jaurtiten dautsa) Or, orain, zeu- retzat. Baiña niri es geiago eskatu ikemelaturik. Alperrik ez eskatu.

MANU.- Nai be ez nik surerik.

KELE.- Ikusiko degu.

URRE.- Jesus, Jesus...? Zer esango dabe orrela ikusten zaituenak? Gure auzokuak zer esango dabe?

PAUL.- Amama, estakizu? Estakizu? Gaur Manu eskola igesi ibili da. Egia da, bai.

URRE.- Ez Benetan?

MANU.- Nai dozuz tellanak artu min laban erre? Zapladak artu nai?

URRE.- Ia, ia esaten dozulako be gero. Zeuk oraindik errazela? Zegaitik etzara juan eskolara? (Manu, muturrak ipinita, irilik.) Esan, zegaitik ez zara juan?

PAUL.- Errebal trikiñean ibili da. Neuk ikusi dot. Egia. Benetan. Neuk ikusi dot.

MANU.-A lapike txiki! Atrapauko zaitut kalia. Ikusike dozu, ikusi. Amak be etsaitu libratuko bai

URRE.- Zelake letsabakekeriak dira erreik, Manu? Esin dautsazu baketan laga ilda dagon ama gaixeari? Beste bein eginge dozu elakorik?

MANU.- (Beteskoz, makur, esezke kiñua egiten dau)

URRE.- Balaunike jarri ta egin parkatu jauna, anaiari, elake gaistua isan barik. Ez-takizu mutil gaistuak gantseruen lagunak izaten dirala?

KELE.- Anuma, Patri be gaistua isan saiako, aitzetan bera jausi san, esta?

MANU.- A, lantzoia! Ori be bai? Txirrist egin ta laprastadaka jausten diranak be gaistuak izaten diralakuan? Ori be sinistu, ori be?

KELE.- (Manu-ri eskua luzatuz, parkamena eskatseko kurutzua ekuan egiñaz) Ala be, egin parkatu Jauna.

MANU.- (Destaintsu) Zeñeri? Zurif

KELE.- Ikusten anuma? Ez dau egin nai.

MANU.- (Parkatu jauna egiterakuan, saltsurkeris txitxiurka egiten dautse)

KELE.- Ai! (Asarre) Orrek ez dau balie.

URRE.- Manu...

MANU.- (Parkatu jauna ende egitean, kele-k eskua jase ta sudurrian jotzen dau) Ikusike dozu, ikusi.

URRE.- Goidi! Naiku da. Zegaitik ez sarie ibiltzen alkarregas jekuan-ede, ikusi-nakusika-ede, beti beti alkarri txepinga ibili barik?

KELE.- Onegas? Tranpak egiteke?

MANU.- Zeñek?

PAUL.- Estrenia bestela be.

KELE.- Neu lenen.

MANU.- Neu nas sarrena.

PAUL.- Baita ni gastena. Ikusi makusi!

KELE.- Zu lenen? Guszurretan ibilteke?

PAUL.- Esta. Benetan. Bene-benetan. Ikusi makusi!

MANU.- Ze ikusi?

PAUL.- ~~Ma~~ Ikusten dot, ikusten dot... Ma. Edo ez, Le

KELE.- Ikusten oraintxe be? Zer da, Ma eda Le?

PAUL.- Le.

MANU.- Lepua.

PAUL.- Ez.

KELE.- Lepante!

PAUL.- Ez.

MANU.- Lefante.

PAUL.- Lefante? Elefante esaten da. Ze kakete da berau?

MANU.-Lemia.

KELE.- Lekia.

PAUL.- Lekia?zer da?

MANU.- Estakizu lekia zer dan? Bofilletan egoten dan ura.

KELE.- Ori lixibia da.Nik lekia esaten dot.Indarrak eta eukiten daben azala.

PAUL.- Ez.

MANU.- Le..le...Lesteko aizia.

KELE.- Aizia ikusi egiten da ala?

PAUL.- Aize bolarak ez dira ikusten?

MANU.- Zudurreko kandelak be ikusi egiten dira ta...kandelak izaten dira?

KELE.- Le...le...

MANU.- Lebatza.

PAUL.- Ikusten?

MANU.-Le...le...

PAUL.- Esango dot?

MANU.- Le...le...Lekettio.

KELE.- Le...leia.

PAUL.- Ezin? Ezin?

MANU.-Zer da ba?

PAUL.-Igarri...igarriii!

KELE.- Ointxe be tranpetan dabil au,amuma.

MANU.- Le..le..

KELE.- Esan nigaitik.

PAUL.- Esango dot,amuma?

URRE.- Onezkere...

PAUL.- Lepak.

MANU.- (Bizi-bizi) Emoten ba dautsut gere...Lepak le gaz asten da?

PAUL.- Ez da elegaz asten?

KELE.- Baiña zuk le esan dizu,le.

PAUL.- Leotik ikusi dezue inoiz,amuma?

URRE.- Bai erruka be.

PAUL.- Askotan?

URRE.- Birritan bai beintzat.

KELE.- Nun?

URRE.- Zirku bat eterri zan uda baten errira.

PAUL.- Leoi ta guzti?

URRE.- Lau bai gitxienez.

PAUL.- Andiak?

URRE.- Burdifikaske kaniel andietan sartuta.

PAUL.- Ene! Ta bildurtu be ez?

- URRE.-Mutiltxoak pozik juaten ziran eurak ikustera. Ogi zatiak erosten eutsezan, arrain azurrak eta buruak, ekela ondakiñak. Ta leeiak, beta ala, iruntsi.
- MANU.- Zelan emeten eutsezan ba?
- URRE.- Makilla luzien puntetan!
- KELE.- Tengadarik ez eutsen egiten?
- URRE.- Bai makillak brintzatu be.
- MANU.- Orain zegaitik ez dabe ekarten leoirik?
- URRE.- Zetarake? Iru mutiltxo urreratu ziran bein.
- PAUL.- Ni lako txikiak?
- URRE.- Ba...ertxe ta ementxe.
- PAUL.- Ta?
- URRE.- Jolasean ebiltzan arri txikiak eta apurrak leiei botaten.
- MANU.- Ta leeiak geldi?
- URRE.- Orruka, amorrus, Pozik ebiltzan mutiltxoak. Bitsetan, leeiak zirikatzen.
- KELE.- Ta arriekin jo egiten zituen?
- URRE.- Jo ta bizitu. Zeratu eragin. Amerratzen ipini. Ta bein...
- PAUL.- Zer amama, zer?
- URRE.- Txirrist egin eban mutiltxo batek. Arria botatean, gorputzaren indarrez, laprast. Burdiñezke kaiola endera jausi zan. Jausi ta batera leirik andienak erpakin ten egin eutsan, ten, bere albera.
- KELE.- Zelan ten?
- URRE.- Burdiña artetik.
- PAUL.- Il egin eben?
- KELE.- Erpa bakarragas?
- URRE.- Ange ikara, txiliotsa, estutasuna!
- MANU.- Nun egozan ba leien zaintzailleak?
- PAUL.- Dematzailerik ez eukan?
- URRE.- Leei zaintzaillea agertu zan bixkor. Tireka asi zan, baiña leei gere ta itsuago, ez egoan umetxoari lagateke. Erpakin arpegi gustia urratu ta bere odela mirkaten itsu-itsu ebillan.
- KELE.- Ta ikusten egozanak ez eben ezer egiten?
- PAUL.- Zeu urreratuke ziñan, ala?
- URRE.- Estutu ziran danak. Didarrez eta negarka egozan. A zan estutasuna! Zaintzaillea beretik urtenda ebillen, irizil luze bategaz eta latiuagaz jo ta jo kaiolake burdiñak... Leei erruka atzeratu zanian, mutil txikiak ez eukan ez zudurrik, ez begirik, ez arpegike narrurik... Odol utsa zan.
- (Ixilunea) Itzala da ez, Paul?
- PAUL.- Korapillua egin yatan estarran.
- URRE.- Ez estutu mutil. Emen ez da jazoten Jaungoiknak nai dabena baiño-ta.

Egun aretan be...Aingerutxuak nai izaten ditue zeruetan mutil urdurá eta zirikalariak be.

MANU.- Nungua zan mutilla?

URRE.- Nungua? Gaur bizi na litz, zuen osaba izango zan. Zuen osaba Miel...

(BEGO ta GOZO agertzen dira. BEGO busti-busti eginda dator. Ezin dau barbar egin. Negarrez eta sispuruka jardungo da. Atian agertzen diranean, lenngotan GOZO agertzen da, lotsaker lez, baiña gere guzurrik ezin biribilduta:)

KELE.- Ene! Ikusten?

MANU.- Uretara jausi, segurutik.

GOZO.- Eztakizu, amuma?

URRE.- Ze jazeten da?

GOZO.- Ondartzan ebillan eta...

KELE.- Ondartzan? Bai! Sinistu nai dabenak!

URRE.- Ez dautsuet beti esaten ara ez juateko?

GOZO.- Ondartzan ebillan eta...

URRE.- Zenbat bidar entsun biar dezue ori? Zelake itxura eta egoera da ori?

GOZO.- Ondartzan ebillan eta...

URRE.- Merezki zenduke geitik bera ebagi-ebagi egitea.

KELE.- Nik eri egin ba neu...

GOZO.- Ondartzan ebillan eta...

URRE.- Ondartzan bakarrik?

GOZO.- Iben'ek eta lagunak ura bota dautse. (KELE ta PAUL kanpora juaten dira, BEGO ri irrika)

URRE.- Ez baketan laga ba zeuntse.

BEGO.- (Zetinka) Nik...nik...nik ez dautset..urik...nik...nik ez.

MANU.- Gaur ez, baiña atze ez zinan ibili?

BEGO.- Gaur ez..gaur ez beintzat. Atso bai, baiña gaur...ez

URRE.- Ez dautsut beti esaten mutillekin ez ibilteko?

GOZO.- Gu geldi-geldi gebizen.

URRE.- Zeintsuk dira mutillek?

MANU.- Postura, seezer egin dautsazuela.

GOZO.- Burak asi dira.

BEGO.- Kirrika bat euken ta guk kendu dautsegulako eurak asi dira.

MANU.- Jakingo dot.

URRE.- Aitaren...Zer jantziko dautsugu erain? Gure etxian zer dagola uste dozue?

BEGO.- Otsak ilten nage.

URRE.- Egongo etzara ba, burutik biatzetara bustita zatoz da?

MANU.- Ortze dago amuma gure alkondaria.

BEGO.- Mutillen alkondaria neuk jantzi? Danek burla egiteko?

URRE.- Nundik asi be... Erantzi erropak eta sartu zaite oian ta egon antxe  
sikatu artean. (BEGO ta GOZO juaten dira. Batetik bestera dabil Urre,  
tarteak arakutzen, erroparen bat billatu naian.)

Oneik umiek... Nerbiruak be etenda lagaten dautsez bateri.

(KELE ta PAUL agertzen dira, eskuetan jantzi batzuk dakarrezala.)

KELE.- Politak dira, ez amama?

PAUL.- Erregale emon dautsuez, erregale?

URRE.- Ta?

KELE.- Ikusi dau Bego negarrez etortzen?

PAUL.- Balie dabe, ezta?

URRE.- Zeiñek?

KELE.- Eztakizu? Dute dendarik. Eztakizu bere errekaduak egiten ibiltzen nagal?

PAUL.- Erregale, amama, benetan, erregale.

URRE.- Ta?

KELE.- Ikusi dau Bego negarrez etortzen.

PAUL.- Balie dabe, ezta?

MANU.- Esaten juango zinen zuek, kentaten.

KELE.- Gu esaten?

MANU.- Ez dautsuet igarri? Ez? Atzaparra mixkaten nagolakuan?

PAUL.- Gu esaten? Ez, Ez da ala, Kele? Berak ez dautsuz emon ba?

KELE.- Onde ba daukaz arretuta ibiliko da. Danen baiña dotoreago.

PAUL.- Maistriak pentzatuko dau aberastu egin gareala etxian.

URRE.- (Jantziak ikusiaz) Ia..ia.. Jaungoiko maitial! Oneik neska gangarrok lotsa-  
tuta lagako gaituz, lotsatuta...

KELE.- Ta ba dakizu? Arek esan dau zuri ez kontateke, baiña...

PAUL.- Ez kontateke esan dau.

MANU.- Zer?

KELE.- ~~Esaten juango zinen zuek, kentaten.~~ Molla ganetik uretara jausi dala.

URRE.- E?

KELE.- Bai, amama, ez esan kontatu dautsudanik, e?

(URRE neskaen gelara juaten da)

PAUL.- Esan dabe noiz ittoko ibili dala.

MANU.- Olako arin ittoten dalakuan?

KELE.- Ezetz? Aitona be ito zan ba.

PAUL.- Nun?

MANU.- Itrasuan. Ta igarian ez ekialako.

PAUL.- Ba ekian.

MANU.- Zeiñek esan dau?

PAUL.- Amumari itanduko dautsagu gero.

MANU.- Neuk dakit ez ekiala.

KELE.- Dana dakizula pentsatu.

MANU.- Zuk baiñe geiago bai beintzat.

KELE.- Zuk?

PAUL.- Saustan ba dakizu nun dagon?

KELE.- Saustan? Kirten! Saturran!

MANU.- Ene! Saustan eta Saturran bat diralakuan?

KELE.- Zu ez zara Saustan en sekula izan.

MANU.- Ez da zeu be San Keolimon.

KELE.- Ara txis egiten dabena bakarririk eruatzen dituelako. Ez da egia?

MANU.- Irri egitearren esaten dozu ori.

KELE.- Trea mayuskularik be egiten ez dakizu zuk.

MANU.- Ezta mairuak be.

KELE.- Jakin ez?

PAUL.- Mairuak jakin ez?

MANU.- Zelan egiten da ha?

KELE.- Asiera eta burtana biribil biribil eginda.

MANU.- Ori be sinistu, mutil?

PAUL.- Ta Malaga ba dakizu nun dagon?

MANU.- Jakin ez? Itrias ertzean, barra egalean.

PAUL.- Nungo barran?

MANU.- Ondarruko barran.

KELE.- Memele! Malaga mapan dago.

PAUL.- Zereko mapan! Ez dakizu andrak euzkia artzen nun egoten diran, barran?

(URRE, BEGO ta GOZO agertzen dira.)

URRE.- Sikatu egizu endo endo burua. Ondo gero!

(BEGO, GOZO k lagunduta, burua sikatzen ibiliko da.)

PAUL.- Amama, aititak ba ekian igarian?

URRE.- Pirkat. Ez aske.

PAUL.- Intzuten?

KELE.- Gure aitita zelakua zan?

URRE.- Ez andi ta ez txiki.

KELE.- Argala?

URRE.- Totele.

PAUL.- Zuri? Baltz?

URRE.- Ez zuri ta ez baltz. Mariñelen koloreko. Neguan illun, atuntsuan gorrizka.

Ule ta bizarra be ~~are~~ urre koloreko.



KELE.- Arrantzale ona izango zan,ez?

URRE.- Bestien antzeko.

MANU.- Izurdetan eta ibiltan zan?

URRE.- Izurdetan,ain zuzen be,ez.Izurdei laga egin bear jakoe arrainak ataraten.  
Atunetan,zimarroitán,berdeletan...

PAUL.- Ona zan?

URRE.- Okerrik ez neutsan ezagutu.Baiña,txotxe,zetarako errenbeste jakin gura?

BEGO.- Sikatu det,amuna.

URRE.- Beste bein ibiltan ba zara...

MANU.- Ori? Beti mutillei burletan ibiltan da.

BEGO.- Ez da egia.

PAUL.- Ezetz? Ta gere...negar eta negar egiten be ez zinen ihili atzo bertan?

URRE.- Negarra? Berak ikusike dau. Len be gurian negarra obeto dago,kaletik mal-  
korik ekarri barik.

GOZO.- Origaitik ibiltan zara beti baltzez jantzita?

URRE.- Origaitik? Alarguna naizelako.

GOZO.- Alargun izatea zer da ba?

URRE.- Bakarrik gelditzea.

PAUL.- Orreia dala orain etzara alargun.

URRE.- Zegaitik ez?

PAUL.- Gu be emen gagoz eta...

URRE.- Baiña laguna falta,senarra falta.

BEGO.- Ni laguna baiño geiago naz,ez?

MANU.- Izan ez? Impreñuko barnabasa zu.

BEGO.- Entzuten,amuna?

PAUL.- Ta Martintxua be alarguna izango da? Gaiztuago da...

URRE.- Batek ba daki.

KELE.- Eta Kospa be alarguna da?

MANU.- Ez dakizu Pelloneko ama dana? Ama izan eta alarguna?

PAUL.- Ori jakiteko aiña posporarik be ez daukazu buruan?

KELE.- Aska esan,zera,Kofradixako lendakarria zara zu bestela be ta.

GOZO.- Ta zegaitik <sup>amuna</sup> beti baltzez jantzita ibili?

URRE.- Ezangarri bat.Oitura bat.Zerbaiten utsunea,illuntasuna agertzeko.

KELE.- Orregaz agertu nai dozu aitita maite zendula,ez?

URRE.- Zeinek ez?

PAUL.- Eta,amumatxe,alargunei bizarrak urteten dautse ekotzean?

URRE.- Alargunei eta alargun ez diranei.

REUL.- Olio kakagaz igortzitan dozue ala?

URRE.- Nek esan dautsu ori,Paul?

PAUL.- Neuk ikusi neban atzo Peru igortzi ta igortzi.

PAUL.- Bai neuk be. Ta berak esaten eban bizarra arinago urteteke zala. <sup>10</sup>

URRE.- Bakarrik ebillan?

PAUL.- Bai. Ni neuk be, Peru lako izatera eltzen nazenian, eri egin bear dot?

URRE.- Kontuz gero elako zikinkeriak egiteagaz.

PAUL.- Ta bizarrrik urten ezik?

URRE.- Orren kezkarik ez artu, ez orixak.

KELE.- Ba eukan aititak bizarrrik?

URRE.- Kirikixu batek baiño sarratuago.

MANU.- Arek aste pekeretzagaz igertziko eban eta...

URRE.- Zeinek esaten dautzus elako gauzak, nek?

PAUL.- Ez dakizu? Peru-ta, Ibon-eta, Patritxu-ta, elakere kontuak esaten ibiltzen dira beti.

(Atea jeten dabe)

BEGO.- Atea jeten dabil norbait.

GOZO.- Bai zera be.

MANU.- Onak beti atearen bildurra eukiten dau.

(Atea jeten barrire)

BEGO.- Egia da ala ez? Estezue entzuten?

MANU.- (Giltzan zuletik ikusiaz) Aguazilla da. Kaku aguazilla.

PAUL.- Eskola igesi egin zendulako etorriko da. Ede uretara jausi zarealako.

KELE.- Ta erain zer?

URRE.- (Deika) Aurrera. Ia txetxe, erain izango dira emen kontuak. Gaur be ba dankazue zuek garraskerien bat.

(KAKU aguazilla sartzen da JHON eta KEFY zine egilleak beragaz datezala.

Sartu erduka KEFY egal batetik eta bestetik argazkiak ataraten ibiliko da.

Uniak bildurtu egiten dira.)

KAKU.- (Garratz) Mutil gaizte baten billa gabiltz.

URRE.- Zein da ori?

KAKU.- Erritik okerrera.

URRE.- Gurean ain zuzen be? Emen?

KAKU.- Ementxe bai, ementxe.

JHON.- (Erredun berbak erbestetarren eran gaitz esanaz)

Barrabas txikiaren billa gateg. Erri onetako Barrabas txikiaren billa, geugas eruateke.

URRE.- Baiña...

KAKU.- Eskola igesi ibiltzen dana. Ementxe ez dage?

URRE.- Beingea parkatzen ez dakizue?

KAKU.- Leicetako kristalak apurtzen dakiana.

MANU.- Nik eneban apurtu. Nin eneban apurtu. Nik arria beta neban, baiña nireak ez eban je.

KAKU.-Ixi! Toki gustietan arrika ibilten dana.Tiragomakin ipilten dana... 11

URRE.- Baiña...

MANU.- Nik eneban apurtu,amuma. Sinistu. Benetan esaten dot. Juramentu egitea nai?

Nik eneban apurtu. Ni ez nitzan izan.

KAKU.- Danakin auskan ibilten dana,danoi geiago egin nairik.

KELE.- Neu naz,amuma,neu naz.

URRE.- Zeu txotxe?

KELE.- Neu juango naz kartzelara.Neu.

KAKU.- Zu ez..zu ez..Ori elitzake zuzena izango. Orrela ezin leike ezer parkatu.

(Manu'ri jarraituz) Ori da,ori...

KETY.- Auxe ez? Ba dauka itxura.

(Argazki bat atara gura dautsa,baiña Manu'k bere burua eskuartean eskutaten dau)

KAKU.- Ez eskutatu,gaizte ori,ez eskutatu.

MANU.- Geiago ezi! Geiago ezi!

KAKU.- Etorri aurrera. Aurreratu.

(Eutsi ta Kety'ri erakutsias) Atsegin? Ba dauka itxurarik?

JHON.- Esan leike baiets. Plantakoa da.

KETY.- Okerra da? Benetan?

KAKU.- Gaiztua? Piper miña bera.

URRE.- Ez ainbesteke. Edozein mutilen antzeko. Ba dagoz errian orrek baino geiago eginge dabenak,azkenean gixaje orrek ordainduta be.

JHON.- Benetan barrabasa?

KAKU.- Ikusiko dozue.

JHON.- Orrela dala,ogei milla peseta.

URRE.- Zer? Ogei milla peseta? Zegaitik? Nundik atara? Etxe uts oneri begiratu ta ogei milla peseta? Komoda zarririk ikusten dozue gurean,urrez beteta egoteko itxurakorik?

KAKU.- Atara ez,Urre. Sartu,sartu.

URRE.- Baiña guk ezin. Prakazarrak erosteko be estaukagu ta ogei milla peseta guriz

KAKU.- Naiago dabe prakazarrekin.

URRE.- Ogei milla peseta?

JHON - Zer? Ez deritxo ondo? Ogetabost ba .

URRE.- Neu joango naz ointxe alkatearengana.

KAKU.- Baiña etzaites itsutu.Alkatiak ez dauka onetan sartu bearrik.

URRE.- Ezetz? Ikusiko dogu.

JHON.- Ogetabost ba,ogetabost...

URRE.- Alargan zar bateri zelan kendu leikez ogetabost milla peseta? Nundik atara-teko? Obe biotza kendu bein.

JHON.- Zer diño? Ez dala konforme? Ogetamar ba,baiña sentimurik be ez geiago.

KAKU.- Ori da suertia, ori. Ume oker eta sapu oneik dirala ta eztirala. Ori da...

URRE.- Neu iltea gura dozue? Orren billa zabilte?

KETY.- Ta zuri berrogekamar.

KELE.- Ze erru daukat nik? Nik ez dot ezer egin. Ni ez naz ezetan sartu.

KETY.- Origaitik. Egin ez dozulake.

URRE.- Zeratuta al gabiz danok?

JHON.- Ta zuri amonatzex... lenengoz musu bat, maitagarria zarealake, ta gero, eun milla peseta.

URRE.- Auxe da litsabakakeria! Jaunak, ezin dot sinistu. Nin ezin nei...

KAKU.- Ori da suertia, ori.

URRE.- Omdamendia! Betike endamendia! Zelako gauzak ekarten dauskuzuz?

KAKU.- Zinekuak! Zinekuak!

URRE.- Ezin dot iruntsi diñozuenik. Zenbat guzur darabiltzuez? Zer nai dozue nigan-dik? Esan egizue bein!

JHON.- Ez estutu, amonatzex. Nasai artu. Ez bildurtu. Pelikula egilliak gara, mundu guz-tian ikusten diran pelikulen egiñak.

KETY.- Amonatzex baten estutasunak agertu nai doguz. Ume triki bezetako amonatzex ba-ten kezka ta burukomiñak.

URRE.- Kezkak eta burukomiñak? Salduko dantsuedaz nai dozuen aiña.

Baiña besterik ez dakit ezer.

JHON.- Zer jakin ez?

KETY.- Baiña bizi guztian egin dozuna ¿a egiten jakin ez?

URRE.- Ene bai! Nik ezer egin ez ba dot!

MANU.- Ez dakizula ezer, amuna? Ez estutu. Neuk erakutsiko dautsut.

URRE.- Zuk, triki?

KELE.- Charlot'ena egiten ba dakigu beintzat. Pepeye be bai. Geu lakoria da a. Ezta-kizu?

BEGO.- Ara, zu dotore-dotore jantzi ta...

JHON.- Ezelake ardurarik eta kezkarik ez artu. Konpenduko gara.

KETY.- Guk ez dautsugu eskatuko bizi guztian egin dozuna baiño besterik. Mutiltzex oneik zaindu, euri jaten emon, jantzi ta... eskola igesi egiten laga ez.

URRE.- Nik ezin sinistu baiña, ezin sinistu. Parte txarrekuak ez ete dira eufok? Zein diabruk bialtzen ete daustaz niri, neure azken egunak garraztuten?

JHON.- Ai amonatzex! Inek be ez ditu sinistuten pelikuletako gauzak.

URRE.- Ta zeineri eskerrak emon bear dautsaguz parte onekuak ba dira?

JHON.- Zeineri? Neiz ittoko ibili dan alabatxoari. Orduntze jakin dogu nor zarien ta zure illobak hertzuk diran. Ta aspaldi ume errukarrien alde egiteko asmotan gabiltzan pelikulia, ementzex egin al izango dogu, zure illobatzoak erabilliaz.

KETY.- Propaganda edo zabalkunde pixkat egiten asi gaitezen, gertu dan danon erretra-tu bat danok batean atarateke.

URRE.- Ain baldar?

JHON.- Bizi zarien lez, bardin bardin. Zenbat eta gordinago, ebeto.

PAUL.- Itxaren pirka baten.

KETI.- Nera zuaz?

PAUL.- Olio kaka igortzitera nua, bibetiak urteteko.

MANU.- Tonto lapiko? Olako arin urtengo dautsulakoan?

KAKU.- Geldi, errekontxo! Arrabal txikiñian zazizalakoan zagoze?

KETI.- Bibetia nai dozu?

PAUL.- Olgetan...

JHON.- Olio kaka baino erremedio obeagoa ta seguruagoa neuk emongo dautsut.

PAUL.- Aste pekerotza?

JHON.- Arte bizarra. Eztakizu? Begira... (Patrikaratik bibete txiki bat atara ta ipi ten dautso) Pozik?

PAUL.- Ta luze-luze asten ba jat, zelan ebagi?

JHON.- Orain dotore zagoz, bai?

BEGO.- Ta gu? Olako itxusi?

GOZO.- Ori, eri! Ta gu?

KETI.- Neiz erain baino dotoreago?

KELE.- (Arretuta) Txapela lagako daustazu, kaku?

KAKU.- Erretratateko? (Emoten dautso) Ta basteia?

MANU.- Ez asarratu байна... Ez zara gogoratzen egun baten, Zubizar inguruan igari egiten gendulake errepak zelan gerde zeunskuzuzan?

KAKU.- Ta?

KELE.- Bai? Ta egun aretan basteiaren faltarik ez zendun artu?

KAKU.- Demonio Demonioena! Zein zan ori? Zein zan nire basteia nik igarri barik gerde ebans?

MANU.- (Egal batetik basteia atara onderen) Kaku...! Ixi! Orain neuk agtzen det! Neuk daukadaz emen txapela ta basteia!

(Argazkia ataraten dautsen bitartean, dan danak dotore ta alai, barre eragiten, kepletan diardue, onetan <sup>une</sup> ~~ana~~ barregarri bat igarri eraginaz)

KELE.- Ze izen ipiniko dautsazue gure pelikuliari?

KAKU.- Zuenari? Nik aginduko ba neu... Barrabasak!

JHON.- Ez, ez... Egokiago ez ete Tritzarre kumiak?

MANU.- (Arro, pregoia jotzen ba lebil lez) Alkate jaunaren aginduz adierazoten da... erri onetan egingo dan pelikuliari<sup>k</sup> ~~ta~~ eruango daben izena, erri guztiaren beraz date izango dala... AINGIRA-KUMAK.

DANAK.- Ori! Ori! Ederto! AINGIRA KUMAK!